KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA, NEIKERREN ARKAUTIKO ETA DERIOKO ZENTROETAN INGURUMEN-INPAKTUAK MINIMIZATZEKO IRIZPIDEAK DITUZTEN *VENDING* MAKINAK INSTALATZEKO ESPAZIO PUBLIKOA ERABILTZEKO EMAKIDAN APLIKATU BEHARREKOA (Erref. 01/25)

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA:

Neikerren Derioko eta Arkautiko zentroetan gizarte- eta ingurumen-inpaktu negatiboak minimizatzeko irizpideak dituzten makinak, edariak (hotzak eta beroak) eta jakiak saltzekoak, instalatzeko espazio publikoaren erabilera-emakidarako espediente hau.

Espediente honen bidez, kudeaketa zentralizatuko eraikinen erabiltzaileen eskura kalitatezko produktu sorta zabala jarri nahi da, prezio ezin hobean, kontuan hartuta produktu horiek zuzenean ematen zaizkiela balizko kontsumitzaileei. Hala ere, beharrezkotzat jotzen da zerbitzu hori ematea, eta espediente hau argitaratuta, kudeaketa-, funtzionamendu- eta kontrol-baldintza batzuk ezarri nahi dira, zerbitzua ahalik eta ondoen eman dadin.

Nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2008ko apirilaren 29ko Erabakia betez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren sektore publikoaren kontratazioan irizpide sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuk sartzeari buruzko Erabakia onartu zuela eta irailaren 9ko 31/2015 Legea, zeinaren bidez autoenpleguaren arloko araudia aldatu eta eguneratzen baita eta lan autonomoa eta gizarte-ekonomia bultzatu eta sustatzeko neurriak hartzen baitira, lizitazio hau **ERRESERBATUTA geratzen dela gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat eta gizarteratze-enpresentzat (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen laugarren xedapen gehigarria)** kontratua osatzen duten bi loteentzat.

2. KONTRATUAREN DESKRIBAPENA:

Kontratua lote hauetan banatzen da:

1. lotea: edari bero eta hotzen, eta aperitiboen *vending* makinen zerbitzua Neikerrek Derion duen zentroan.

Zerbitzua emateko tokia: Bizkaiko Teknologia Parkea, 812. partzela. Berreaga 1. 48160. Derio (BIZKAIA).

2. lotea: edari bero eta hotzen, eta aperitiboen *vending* makinen zerbitzua Neikerrek Arkautin duen zentroan.

Zerbitzua emateko tokia: N-104, 355. km – 01192 Arkauti (Araba).

3. DESKRIBAPEN TEKNIKOA

DERIO:
- edari beroak saltzeko makina
- edari hotzak saltzeko makina
- jakien makina.

ARKAUTI:
- edari beroak saltzeko bi makina
- edari hotzak saltzeko makina
- jakien makina.

JAKIAK EDO ONTZIRATUTAKO EDARIAK SALTZEKO MAKINEN BETEKIZUNAK

1. Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzko 17/2011 Legearen NAOS* estrategiaren parametroak bete behar dituzte elikagai-makinek eskaintzen dituzten aperitiboetako batzuek.
2. Ez da eskainiko genetikoki eraldatutako organismoetatik datozen osagaiak izatearen etiketa behar duen produkturik, genetikoki eraldatutako elikagaiei eta pentsuei eta genetikoki eraldatutako organismoen eta horiekin ekoitzitako elikagaien eta pentsuen trazabilitateari eta etiketatzeari buruzko 1829/2003 (EE) Erregelamenduaren arabera.
3. Eskaintzen diren produktuek dagozkien araudi tekniko-sanitarioak bete beharko dituzte. Era berean, kutsatzeko arriskua saihesteko moduan jarri beharko dira produktuak.
4. Produktuek maiatzaren 26ko 640/2006 Errege Dekretuan elikagaien higieneari, ekoizpenari eta merkaturatzeari buruz xedatutakoa bete beharko dute.
5. Eskainiko diren produktuek jarduera mota bakoitzerako baimendutako industrietatik etorri beharko dute.
6. Hornitu behar diren produktuek elikagaien etiketei, aurkezpenari eta publizitateari buruzko arau orokorra bete beharko dute, uztailaren 31ko 1334/1999 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

EDARI BEROAK SALTZEKO MAKINEN BETEKIZUNAK

Zerbitzuaren ezinbesteko betekizunak hauek izango dira:

1. Kafe, kakao eta esne mota bat eta horien konbinazioak eskaini beharko dituzte, baita gutxienez te aukera bat ere.
2. Kafeak kafe-aleetatik egina izan beharko du.
3. Kafe torrefaktua baztertu egin da lizitazio honetan eskaini behar diren produktuen artetik, osasunean dituen ondorioei buruz dagoen eztabaida dela-eta, eta «zuhurtasun sanitarioa»ren printzipioa aplikatuz. Ez da onartuko metodo horrekin txigortutako kafea erabiltzea.
4. Prezio-sistema bikoitzarekin programatzeko aukera izan beharko da (edalontzirik gabe/edalontziarekin). Lehenespenez, produktua EDALONTZIRIK GABE eskaintzeko programatuta egongo da makina. Makinak sistema bat izan beharko du edaria hartzeko puntuan utzitako edalontzia detektatzeko (katilu-sentsorearen kita). Aurrez programatutako aukera horren berri eman beharko da makinaren pantailan, eta EDALONTZIAREKIN zerbitzua eskainiko da bigarren aukera gisa. Bigarren aukera horrek gainkostu bat izango du, edalontziak egiteak dakarren lehengai-

kontsumoaren inguruan kontzientziatzeko, baita material berrerabilgarrien (norbere edalontziak eta katiluak) erabilera sustatzeko ere.
5. Erabili eta botatzeko edalontzia ezin da plastikozkoa izan.
6. Dieta osasungarria sustatzeko, AZUKRERIK GABE aukera lehenetsiko du aurrez programatutako zerbitzuak. Makinek sistema bat ezarri beharko dute, erabiltzaileak eskatuta azukre-kantitatea handitzea ahalbidetuko duena.
7. Enpresak nekazaritza ekologikoko produktuak zein diren adieraziko du makinetan, bai eta erabili eta botatzeko edalontzia erabiltzeagatiko gainkostua ere.

***VENDING* MAKINA GUZTIAK**

1. Energetikoki efizienteak diren makinak instalatzeko eskatuko da. Eskaintzak konparatzeko, enpresa lizitatzaileek EN-50597 arauaren testeko emaitzak aurkeztu beharko dituzte (kWh/urte).

2. Makinan, ikusteko moduan, datu hauek agertu beharko dute:

   - Erabilitako makinen administrazio-homologazioa.
   - Arduradunaren identifikazioa eta bere telefono-zenbakia, matxura eta erreklamazioetarako.
   - Ez da onartuko tarifa gehigarriko aurrizkiak dituzten zenbakiak izatea (902 eta abar), erreklamatzailearentzat kostu gehigarria dakartenak.
   - Funtzionamendu-baldintzen eta produktu edo zerbitzuen deskribapena, prezioa barne.
   - Ingurumenarekiko edo gizartearekiko arduratsuak diren produktuen adierazpen argia (jasangarriak, bidezko merkataritzakoak, nekazaritza ekologikokoak, ekoizpen integratukoak edo Euskolabel, etab.).

3. Makinek dirua itzultzeko sistema bat izan beharko dute, salgairik ez dagoenerako edo behar bezala funtzionatzen ez dutenerako.

4. Makinek sistema elektroniko bat izango dute, behar bezala funtziona dezaten eta zerbitzua kalitate onekoa izan dadin.

5. Enpresa lizitatzaileak txanpon-txartelak emango ditu makinan zuzenean ordaintzeko.

6. Hornitu beharreko produktuak kutsatzeko arriskua saihesteko moduan diseinatu, eraiki eta kontserbatu beharko dira makinak.

7. Elikagaiekin kontaktuan dauden gainazalek egoera onean egon beharko dute, eta

erraz garbitu eta desinfektatzeko modukoak izan beharko dute. Horretarako, material leunak eta toxikoak ez direnak beharko dira.

8. Behar diren instalazioak eta gailuak izango dira, elikadura-produktuen tenperatura-baldintza egokiak mantentzeko eta zaintzeko.

9. Makinen informazio eta seinale guztiak ele bitan izango dira, euskaraz eta gaztelaniaz.

4. PRODUKTUAK.

KONTSUMOAREN HISTORIA

1. LOTEA. DERIO

2. LOTEA, derio	2024 URTEKOA
KAFE-MAKINA	13.037
APERITIBO-MAKINA	3.891
EDARI-MAKINA	746

2. LOTEA. ARKAUTI

1. LOTEA, arkauti	2024 URTEKOA
KAFE-MAKINA	23.527
APERITIBO-MAKINA	969
EDARI-MAKINA	1.193

Lizitatzaileek erreferentzia bat izan dezaten ezarri dira kontsumo-historia horiek, baina horrek ez dakarkio inolako betebeharrik NEIKERi.

8. PREZIOAK

Hainbat produkturen oinarrizko kalitateak eta prezioak ezartzen dira. Produktu horiek erabiltzaileei eskainitakoetatik kontsumo-maila handiena dutenak dira, eta enpresa adjudikaziodunek nahitaez eskaini behar dituzte.

Oinarrizko kalitate eta prezio horien gainean, makinen energia-efizientziaren, produktuen kalitatearen eta abarren estandar batzuk finkatzen dira, eta horiek dira eskaintza onuragarrienak zehazteko aintzat hartzen diren irizpideak.

Jarraian, nahitaez zerbitzatu behar diren produktuak deskribatzen dira, preskripzio teknikotzat hartzen diren kalitate eta gehieneko prezioekin:

	Prezioa, EDALONTZIRIK GABE (edarien kasuan) GEHIENEKOA-BEZik gabe
% 100 arabica kafea/kakaoa + % 100 esnea	0,70
Erabili eta botatzeko kartoizko edalontzia	0,05
Ur naturala, 500 ml	1 €
33 cl-ko askotariko freskagarrien lata/ontzia	2 €
Sandwich mistoa	2,5 €
Fruitu lehorren poltsa	2 €
Aperitiboak (makilatxoak pipekin, etab.)	2 €

- NAOS estrategia betetzen duten produktuak

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren Kontsumoaren, Elikagaien Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziaren (AECOSAN) NAOS estrategia (Nutrizioa, Jarduera Fisikoa eta Obesitatearen Prebentzioa) 2005. urtean jarri zen abian. Estrategia hori Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzko uztailaren 5eko 17/2011 Legearen bidez formalizatu zen. EAEn, Innobasque da *vending* sektorean estrategia horren sustatzailea, jardunbide egokien gida baten eta kanpaina baten bidez. Hauek dira ontziratutako anoa bakoitzeko gomendatzen diren elikadura-irizpideak:

- Gehieneko balio energetikoa: 200 kcal

- Kilokalorien % 35, gehienez, gantzengatik izango da (hau da, 200 kilokaloriako anoa batean, 7,8 g).

- Kilokalorien % 10, gehienez, gantz aseengatik izango da (hau da, 200 kilokaloriako anoa batean, 2,2 g).

- Trans gantz-azidorik ez izatea, esnekietan eta haragietan modu naturalean daudenak izan ezik.

- Kilokalorien % 30, gehienez, azukreengatik izango da (hau da, 200 kilokaloriako anoa batean, 15 g).

- 0,5 g gatz gehienez (0,2 g sodio).

Aperitiboak saltzeko makinek ilara oso bat gorde beharko dute nahitaez, NAOS irizpideak betetzen dituzten produktuak eskaintzeko.

- Gainerako produktuak eta gutxieneko nahitaezko dosifikazioak.

Hemen agertzen dira nahitaez eta adierazitako gutxieneko dosietan eskaini beharko diren produktuak.

Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren indarraldiko edozein unetan proposatu ahal izango du ordura arte onartu ez diren produktu berriak hornitzea edo hasieran eskainitakoren bat aldatzea, betiere nahitaez eskaini beharreko produktuei ez badagokie. Kasu horietan, idatziz jakinaraziko zaio Baliabide Orokorren Zuzendaritzari produktu berriaren izena, osaera, enpresa fabrikatzailea, osasun-erregistroa eta abar, baita makinen erabiltzaileentzako salmenta-prezioa ere.

Nahitaezkoak ez diren produktuen prezioa

Nahitaez eskaini behar ez diren produktuen prezioari dagokionez, hautatutako enpresei eskatu ahal izango zaie Baliabide Orokorren Zuzendaritzara produktuen zerrenda bat bidaltzeko, publikoarentzako salmenta-prezioekin. Prezioak globalak izango dira, eta, beraz, zerbitzuen zenbatekoa eta legez baimendutako zerga eta tasa guztiak barne hartzen dituztela ulertuko da. BEZa prezioetan sartuko da, eta berariaz adieraziko da «BEZa barne».

Azkenik, garrantzi berezia ematen zaio enpresa adjudikaziodunek eman behar duten garbiketa- eta higiene-zerbitzuaren, laguntza teknikoaren eta makinak betetzeko zerbitzuaren kalitateari. Hori horrela, zerbitzu onaren adierazleak eta giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa lizitazioaren betekizun bihurtzen dira. Betetzen direla bermatzeko, kontrol-neurri batzuk ezartzen dira, eta betetzen ez badira, prozedura azkar bat, intzidentziak eta balizko arau-hausteak argitzeko, eta zehapen-araubide bat, barne hartzen dituena isunak, eta, azken batean, adjudikaziodunaren erruzko kontratuaren suntsiarazpena.

Baloratu behar diren irizpide gisa ezartzen dira makinen energia-efizientzia eta nekazaritza ekologikotik datozen produktuen eskaintza.

4.- ZERBITZU TEKNIKOA

5.1 Enpresa adjudikaziodunek bete beharreko baldintzak:

a) Adjudikazioduna arduratuko da makinak eta inguruko espazioa (adibidez, likido-isuriak, etab.) une oro garbiketa- eta kontserbazio-egoera ezin hobean mantentzeaz, eta adjudikaziodunari egotziko zaizkio eragindako kalteak, halakorik balego.

Halaber, enpresa adjudikaziodunei dagokie makinen funtzionamenduaren ondorioz sortzen diren hondakinak (kutxak, poltsak, hondarrak, azalak...) gaitutako edukiontzietara eramatea.

b) Agiri hauen objektua den zerbitzua garatzeko eginkizunak betetzen dituzten langileek lotura zuzenekoa izango dute enpresa adjudikaziodunarekin, bai lan-arlokoa (kontratatutako langileak), bai estatutu-arlokoa (enpresako bazkidea). Elikagaien manipulatzaile-txartela izan beharko dute, eta eskura eraman beharko dute une oro, zentroan dauden bitartean.

Enpresa adjudikaziodunek zerbitzuaren hasieran makinen mantentze-lanetarako programa eta egutegi bana aurkeztuko dituzte, deskaltzifikaziorako, termostatoak doitzeko, etab.

c) Enpresa adjudikaziodunek pertsona bat izendatuko dute «kontratuaren arduradun» gisa, Baliabide Orokorren Zuzendaritzarekin harreman zuzenekoa eta pertsonala izateko. Telefono-zenbaki bat eta zuzeneko arretarako helbide elektroniko bat izan beharko ditu, eta enpresarekin harremanetan jartzeko erabiliko dira, abisuak eta intzidentziak jakinarazteko.

d) Enpresa adjudikaziodunek urtero txosten bat aurkeztuko dute, eta bertan adieraziko dute produktu bakoitzaren urteko kontsumoa; (edari beroen kasuan) hondakin bihurtutako erabili eta botatzeko edalontzien kopurua eta edalontzirik gabeko kontsumizioen ehunekoa, guztizkoarekiko; makinen mantentze-lanen ziurtagiriak; hornitutako nekazaritza ekologiko eta jasangarriko produktuen kiloak edo unitateak.

5.3.- Makinak garbitzea eta mantentzea, eta produktuz betetzea.

Kafe-makinak aldian-aldian garbitu beharko dira, higiene-baldintza egokiak betetzeko.

Makinen mantentze-lanak enpresa adjudikaziodunak aurkezten duen plana betez egin beharko dira. Makinak produktuz betetzeko lanek bermatuko dute makinak eskatutako zerbitzu guztiak emateko moduan egotea.

5.4.- Matxurengatiko abisuei erantzuteko denbora.

Baliabide Orokorren Zuzendaritzak makina batek arazo hauetakoren bat duela detektatzen badu:

- matxuratuta dago
- ihes-arazoak ditu
- isuriak
- usain txarrak
- hornikuntzarik gabe dago

berehala jakinaraziko dio makinaren titularra den enpresa adjudikaziodunak izendatutako kontratuaren arduradunari.

4 lanordukoa izango da (8:00ak-18:00ak artean) jakinarazpena jaso duen enpresa adierazitako makina dagoen instalazioetara joateko gehieneko epea, jakinarazpen hori bidaltzen denetik zenbatzen hasita. Konponketak *in situ* egingo dira, edo,

intzidentziak hala eskatzen badu, makina lekuz aldatu ahal izango da, eta, kasu horretan, ezaugarri bereko beste batekin ordeztu beharko da konponketa-aldian.

6. LIZITATZAILEEN BALDINTZAK

99. artikuluan ezarritakoaren arabera, loteetako bat edo batzuk enplegu-zentro berezientzat edo gizarteratze-enpresentzat erreserbatu daitezke, SPKLren laugarren xedapen gehigarriaren arabera.
Horrek esan nahi du lizitatzaileak honako hauek baino ezin direla izan:

- GIZARTE-EKIMENEKO ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAK
- GIZARTERATZE-ENPRESAK